

## Martin Ugalde

Ane Muñoz

*Hondarribia*, 73. zk., 1996-12: 14-18.

Aurkezpenik ere behar ez duen pertsonaia aukeratu dugu udazkeneko azken ale honetan elkarrizketatzeko, hau da, Andoainen jaio, urtetan zehar han eta hemen ibili eta aspaldi honetan Hondarribian bizi izan den Martin Ugalde, idazle, kazetari, historigile eta batez ere euskaltzalea.

– *Andoainen jaio eta familia bertakoa izanda, nolatan aukeratu zenuen Hondarribian kokatzen?*

– Egia esanda, oso berandu ezagutu nuen Hondarribia. Nire aitzindariak bezala, ni ere inguru honetan ibili bai baina ez nuen sekula Hondarribiaren berri izan. Nire aitona behin Lezorantz familiarekin zihoala, tren okerra hartu eta ohartu orduko Hendaian zegoen sendia. Orduan jakin zuten bide horretan Irun zegoela, baina bestalde ez zuten hartan Hondarribiren berri izan. Nik Venezuelan urte batzuk igaro nituen, eta handik etorri ginenean, emazte eta hiru seme-alabekin, ez nindutenez Euskal Herrian geratzen uzten, Irun aukeratu genuen txikiek bertako eskolan ikas zezaten ni ahalik eta gertuen egonda: Hendaian kokatu nintzen. Ondoren, ez nuela idatziko agindu nuen, txintxo portatuko nintzela, eta horrela, utzi ninduten familiarekin bizitzen. Nora joango ote bizitzera, eta Ana Mari emazteak Hondarribia oso gustukoa zuela eta, bertara etortzea proposatu zuen. Hura izan zen nire lehen kontaktua hiri honekin. Eta etxe honekin ere, ordutik haxe izan baita gure etxea.

– *Zer dela eta txintxo portatu behar lasai-lasai zure sendiarekin nahi zenuen tokian bizi ahal izateko?*

– Francoren garaia zen, eta noski, ni ordurarte Venezuelan egonda nintzen, oso familia abertzalea ginen etxeokak, eta han Karakas nengoela, bertako EAJ-eko buru nintzen, bai eta Euskal Etxeko lehendakaria ere. Beraz, politikoki ez nintzen orduko agintarien oso gustukoa, eta horrek ez ninduen hemen bizitzen uzten.

– *Oso gazte zinelarik guraso eta anaiagandik banatu egin zintuztela entzuna dut. Kontaiguzu nola izan ziren familia urruti zeneukaneko urte haiek.*

– Mutiko koskorra nintzela, hamabost bat gerra iritsi zen eta ni Bilbo aldera joan nintzen. Handik ontzi batean Santanderra eta gero Frantziarra. Bitartean, anaia Errusiara eta aita berriz Venezuelarantz abiatu zen. Ama Bartzelonan kokatu eta gero Andoaina itzuli zen. Hemen inguruan, Iparraldean nenbilela, alemanak sartu ziren Frantzian. Hor parean (*Hendaiako hondartza daukagu une honetan begibistan*) aliatuei aurre egiteko bunkerrak egin zituzten orduan alemanek itsasertze osoan zehar: 1939. urtea zen eta, ni han atzerritarra nintzenez, gorritzat hartu eta konzentrazio zelai batera

eraman ninduten alemanek. Handik amarengana bidali ninduten, Andoaina. Bizpahiru urte geroago, sendiak sakabanatuta jarraitzen zuelarik, Tetuana (Afrika) eraman ninduten, soldaduskara. Hiru urte oso egin nituen han, eta Melillan nengoela hilabete batzuk gaisorik igaro nituen ospitalean, berriro amarengana ekarri ninduten arte. Gerra bukatu berri zen, eta gauzak txukuntzen hasi zirenean, 1947. urtean, Venezuelara joan ginen sendi osoa aspaldiko partez elkartzuz. Anaia ezkondu eta bi haurrekin azaldu zen Moskutik.

– *Kontakturik bai al zen zuen artean? Elkarren berririk izaten al zenuten urte gogor horietan?*

– Oso zaila zen batzuk besteekin harremanetan jartzea. Oso gutxitan iristen zen eskutitzen bat, ia inoiz ez. Hara zer gertatu zitzaidan behin aitarekin: prentsaren bitartez jakiten genuen munduaren beste aldean zer gertatzen zen, eta aita Venezuelara joan eta handik gutxira, berak hartutako ontzia hondoratu egin zutela irakurri nuen. Aita hil zitzaidala uste izan nuen orduan. Baina handik bi egunetara, alemanek ontzi hori Venezuelatik honantz zetorrelarik hondoratu zutela azaltzen zen prentsan, eta hura izan zen berri ona!

– *Urte horiez duzun oroitzapena nagusiki tristea da, beraz.*

– Oso tristea. Gose handia zegoen, familiaren berririk ez... Anaia bizirik zen ala ez urte askotan zehar ez nuen jakiterik izan.

– *Seniderik ezean, lagun minak izango zenituen garai hartan, ezta?*

– Beharko! Etxekorik gabe eta, lagunak halabeharrez bilatu behar genituen, bestela ezin bizi! Une bakoitzean, nengoen lekuan lagun asko egiten nituen, nahiko irekia nintzen eta ez zitzaidan zaila egiten. Haiek ziren nire gurasoak bezala, askotan familiaren ordeko. Andoainen ere, gero, ama lagun batzuk hartu zuten etxean, eta haiekin jarri ginen bizitzen, gurea zen guztia kendu baitziguten; etxea, tailerra, orduan dena galtzen zenuen. Urte gogorrak izan ziren haiek. Lagunekin elkartasun handia izaten zen, dena den. Gogoratzen dut gutakoren bati urdailazpiko, txorizoa edota jakiren bat bidaltzen baziguten, paketearen zain egoten ginela ero moduan, eta jaso ondoren arratsaldea elkarrekin pasatzen genuen denen artean paketeak zekarrena jaten. Baina azkarregi bukatzen zen, eta gero, berriro hurrengo paketearen zain egon behar! Beti geunden paketearen zain.

– *Noiz hasi zitzaizun idazteko zaletasuna?*

– Betidanik gustatu izan zait idaztea, baina garai hartan debekatua zegoen, eta gainera helbururik edo objetiborik ez duzunean ezinezkoa da idaztea. Askatasuna behar da. Kontrol handia zegoen orduan. Herritik ateratzea ere debekatuta zegoen, eta beraz, andregaiak ere Andoainen bertan bilatu behar genituen, bestela...

– *Azkenean, Venezuelara joan eta hantxe aurkitu omen zenuen Ana Mari santurtziarra, gaur egun zure emaztea dena, ezta?*

– Uf, askoz ere aurrerago izan zen hori, baina hala da, Venezuelan ezagutu genuen elkar.

– *Zer suposatu zuen Venezuelara joan eta bizimodu berria hasteak?*

– Hara iritsi arte ez nuen sekula askatasuna zer zen ezagutu. Lasai aurkitu nuen nere burua, aske, eta orduan konturatu nintzen zer zen benetan egitea gustatzen zitzaiana. Idaztea, alegia. Venezuelanoz idazten ikasi nuen, eta ipuinekin sariak irabazi nituen; ezagun bilakatu nintzen mundu hartan baina beti arrotz, kanpotarra sentitzen. Asko irakurtzen nuen, hango literatura ipuinak dira batez ere, eta nik guztiak irensten nituenez, asko ikasi nuen. Irakurketa funtsezkoa da gero ongi idazteko.

– *Karakasen kokatu aurretik ere, asko irakurtzen al zenuen?*

– Beti irakurri izan dut asko. Oraindik badut liburu pila gaztetxo nintzenekoak. Gehien bat biografiak izaten ziren, hura zen gustukoena nuen jeneroa, Frantzia hemenean baino literatura gehiago egiten zen garai hartan, eta hango liburuak irakurtzen nituen.

– *Ipuinetara itzuliz, Venezuelen ikasi eta ez duzu ordutik sekula jenero hori baztertu, ezta?*

– Asko gustatzen zaizkit ipuinak. Nere seme-alabentzat idatzi ohi ditut haurrentzako ipuinak, baina normalki helduei zuzendurikoak idatzi ohi ditut. Laburrak direlako gustatzen zaizkit ipuinak; gezi bat bezala dira. Hau da, martxa handiarekin atera behar du, zuzen eta geratu gabe, bestela ez da zuzen joango eta dianaren erdian emateko zuzen joatea komeni da. Formula hori asko erabili dut nire lanean. Bestetik ere, Venezuelen ikasitakoa betirako baliagarri izan zait, eta are gehiago, estilo venezolanoa erabiltzen dut euskaraz idazten ere. Hori da nere estiloa.

– *Orduan gaztelaniaz idazten zenuen, eta euskaraz ere estilo bera erabiltzea ez al da kurioso?*

– Ez, zaila dena hizkuntza bakoitzean estilo ezberdina izatea da.

– *Duela gutxi Pedrotxo zure eleberraren argitalpen berria kaleratu da. Zuretik asko aurkitu omen daiteke bertan. Hala al da?*

– Pedrotxo nire osaba berezia zen, eta harengan inspiratu nintzen pertsonaia eratzean. Ingenuo samarra zen, inozoa, nahiko sinplea ere, eta hantxe ibiltzen zen, herriko kaleetan zehar bonboa jotzen. Bera pozik joaten zen, baina niri nolabaiteko pena ematen zidan, bonboa jo eta jo eta bera konforme baino kontentuago. Nik zera pentsatzen nuen askotan, alegia haren odola neramala, eta beraz bere ordezi ni neu izan nintekeela bonboa jotzen zuen pertsonaia hura. Gizajoa, gero gerrara ere eramane zuten.

– *Erraztasun ber-berez idazten al duzu euskaraz eta gaztelaniaz?*

– Bai, baina prozesu luze baten ondorioa da, hau da, hizkuntza batean idazteko gai izan zaitezke hizkuntza bera hitz egiten baduzu, baina ongi idazteko askoz ere urrutiago joan behar duzu, asko ikasi behar duzu, kultura hori menderatu, hizkuntza horretan asko irakurri, eta orduan gai izango zara hartan idazteko ere.

– *Bestalde, zuk ez zenuen gaztetan euskarazko testu gehiegirik irakurtzeko aukerarik izan, ezta? Nola moldatzen zinen euskaraz irakurtzeko?*

– Orduan ez zen material nahikorik. Fernando Amezketarraren Ipuinak baizik ez nituen topatu hemen, eta beraz, hona etorri eta 15 urte pasa nituen gaztelaniaz bakarrik idazten. Eta orain, berriz, azken hamabost urteotan, nolabait orekatu egin dut orduko hutsunea, konpentsatu, euskaraz bakarrik idatziz. Asko kostatu zitzaidan euskaraz idaztera ohitzea, nik baneukan ohitura bat, estilo bat, estetika, eta hura euskarara moldatu arte luzea izan zen. Batez ere, ez neukalako euskarazko eredurik, noren estiloa jarraitzerik, eta nire gisara eratu nuen estilo latinoamerikarra. oso fidela izan natzaio garai hartan ikasitako estiloari.

– *Nolatan bururatu zitzaizun hemengo Historiaz idaztea?*

– Ordurarte galerazia egon zen, eta beraz, bat-batean topatu nuen neure burua, historiaz ezin jakinean. Euskal Herriaren historiarik ez zegoen idatzita, eta nik jakinmin handia nuen. Beraz, ni neu jarri nintzen idazten, "Síntesis de la Historia del País Vasco" idatzi nuen, adibidez. Gogorra izan zen, oso zaila baitzen edozer datu han eta hemen lortzea.

– *Francoren garaia zela kontuan hartuz, harrera oni izan al zuen?*

– Ia hamar argitalpenekin, ehun mila inguru liburu saldu ziren, eta egun haietan hori oso zaila zen. Baina Chicagon kazetaritza ikasia nintzen eta banuen ordurako hainbat esperientzia eta truko. Ni kanpora bota baino egun batzuk lehenago, Madrilen utzi nuen nire lana, kaleratzeko prest. Noski, errazagoa zen han kaleratzea hemen baino.

– *Gaztelaniaz idatzi zenuen hura, ezta?*

– Bai, oraindik ez nengoen prestatuta euskaraz idazteko, asko ikasi nuen gero, eta gainera euskarazko irakurlerik ere ez zegoen garai hartan. Eredurik ez zegoenez ere, dena asmatu egin behar zen, eta beno, nik aknpoan ikasitakoa bertara egokituz, asko kostata baina lortu nuen.

– *Kanpoan zeundela eta, oso argi al zeneukan Euskal Herrira itzultzeko asmoa?*

– Bai horixe, beti jakin dut hona itzuliko nintzela, eta kanpoan ikasitakoa gero hemen baliagarri izango zitzaidalakoan nenbilen beti, honerako prestatzen. Nere bizitzako proiektua izan da, eta azken finean, urte latzak eta lan asko egin behar izan badut ere, nahi nuena lortu dut behintzat. Idazterakoan ere, independentea izan naiz beti, nahi nuena eta nere modura idatzi nahi izan dut, beti, eta hori gogorra izan zait, noski, pasa ditugun urteekin.

– *Politikaren munduan ere sartua izan zara urte askoz. Noiz hasi zinen aktiboki alderdiarekin lanean?*

– Ni beti izan naiz euskalduna. Aita Andoaingo zinegotzia zen, eta ni haur abertzale bezala hezi ninduten. Dantzaria izan nintzen, batzokietan egiten genuen dantza, anaiak, aitak eta hirurek. Gogoratzen dut Billabonatik dantza irakasle bat behar zutela eta, hamalau urte nituela, aitak bidali ninduen, dantza taldeko arduradun bezala joateko. Txikitatik izan dut proiektu abertzalea, nere Zeraingo aitonarengatik adibidez.

Andoainen kokatu eta bertako batzokia berak egokitu zuen, baserri zahar bat zegoen tokian, arotza zen eta. Oso abertzalea zen, Sabinianoak izan gara familian beti, eta aitonaren atzetik aita etorri zen, eta gero noski, ni neu. Egoera ezberdinetan baina proiektu ber-bera da haiena eta nik jarraitzen dudana. Haiiek ere zaila izan zuten bizitza, ikus dezakezun bezala, Ugaldetarrei erraztasunik ez zaie inondik etorri! Urte askotan zehar EAJ edo PNV alderdiko militante eta Venezuelen buru ere izan ondoren, Garaikoetxea eta Arzalluz banatu egin zirenean EA sortu berrira pasatu nintzen.

Dena den, politikan egin dudana lana informeak, idatziak egitea zen, ez dirigente edo politikari zuzen bezala. Agirreren prentsaurrekoak prestatu izan nituen Venezuelen nengoen garai hartan adibidez.

– *Zaila izan zaizue, baina hala ere ez duzu zuk behintzat sekulan etsi.*

– Ez, beti borrokan ibili behar da, borroka onean noski, eta hala ibili naiz ni. Agirre Lehendakaria Venezuelara etortzen zenean, gogoratzen dut abertzaletasunean bizi behar genuela esaten zuela. Abertzaletasunean borrokatu behar genuela baina Erasmo bezala, eta ez Calvino bezala. Gauzak konpontzen borrokatu eta ez hausten alegia. Nik beti izan dut hura gogoan, eta gure artean ez naiz sekula hauste izan, ahal nuen neurrian konpontzaile baizik.

– *EGUNKARIAren Administrazio Kontseiluko Lehendakaria zara. Orain, proiektu honen sorreratik sei urte igaro direnean, zer esan dezakezu berari buruz?*

– Nere azkeneko proiektu ederrena da EGUNKARIA. Gogorra izan zen hasiera, lan asko egin genuen eta erronka handia zela jakinda ere, gogoz aritu ginen lagun talde handi bat. Hor tartean, bi lagun ekarri nahi ditut gogorra, haien lana ezinbestekoa izan baita gure proiektu handi honetan. Joxemi Zumalabe zena, hona etorri zitzaidan ia Egunkaria sortzeko proiektu hartan lagunduko nion galdezka. Beste aldetik EAJkoak etorri zitzaizkidan ere, euren proiektua hobea zela, bazutela dirua, eta gure beste asmoa ezinezkoa zela burutzera. Nik berriz, euskal egunkari bat sortzeko bide bakarra ARGIA aldizkaria zela banekien, eta beraz beste proiektuari eutsi nintzaion. ARGIA izan da gure eskola, gerra aurretik ere, euskal kazetariak sortzen ziren ARGIAN eta HERRIA Iparraldekoan ere. Hori zen foko bakarra, beraz, Joxemielekin jarri nintzen martxan. Bestetik, Joseba Jaka iaz hil zena ere ekarri nahi dut gogora, hura izan baitzen une guztitan lagundu duena, une zailenetan ere, hortxe izan da beti, meritu handiko gizona zen.

– *Une latzik ez zaio falta izan EGUNKARIAri dena den, eta halaz eta guztiz ere, atera da aurrera, ezta?*

– Bidea zuzena denean eta asmoa ona denean, gero indarrak elkartu egiten badira eta lan nahikoa egin, nahi dena lortzen dela erakusten du horrek. Eta horrela atera dira "Síntesis de la Historia del País Vasco", eta beste hainbeste proiektu ere.

– *Horrek ez al zaitu animatzen beste proiektu gehiagotan sartzera?*

– Bai noski, hori da gure petroleoa, ez dugu besterik, eta beraz, irudimen ona eta indarrak elkartuz, lan asko eginez lortzen ditugu guk helburuak. Zientzia adibidez, beste

petroleoa da; orain eman berri diote gai honetan Etxenikeri Euskadi saria. Literatura ere. Hori bai, lana egin behar da, asko gainera, eta diru gehiegirik gabe hobe. Zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta gogo gutxiagorekin egiten da lan, hobe da eskas ibiltzea, ilusio gehiagorekin egiten baitira gauzak.

– *Zure 75. urtebetetzearen aitzakiarekin bazkari goxo bat egin omen zenuten lehengoan.*

– Oso gustura egon ginen, talde txikia elkartu baginen ere, denak lagunak eta oso giro onean egon ginen. Ez zait gehiegi gustatzen omenaldi eta halakoetan erdi-erdian egotea. Ez zait sekula protagonista izatea gustatu, baina beno, ez zen jende gehiegi eta ederki egon ginen.

– *Aldizkari honen kolaboratzaile izan zara beti, jarraituko al duzu noizean behin artikuluren bat idazten?*

– Bai noski, Hondarribirekin lotura duen gaien bat topatzen dudanean gustura idatziko dut berriro.

– *Idazluma eta paperarekin hasi eta, nola idazten duzu gaur egun? Ordenagailua sartu al da zure etxean?*

– Fermin Olaskoaga nire lagunari esker azken hamar urteotan ordenagailuz idatzi dut. Berak bultzatu ninduen ikastera, eta hasieran beldur piska bat ematen bazidan ere, abantaila handiak dituela laster ohartu nintzen.

– *Eguberriak gainean daude eta, zu gaztetxo zinela familia guztia sakabanatuta egon bazen ere, gaur egun elkartu egiten al zarete halako egun berezietan?*

– Noski, nahiz eta urtean zehar bakoitzak hor barna bere bizia egin, urtean behin baino gehiagotan elkartzen gara. Unai mikrobiologo, kimika irakasle eta Fakultateko dekanoa da; Itxaso nere alaba berriz, Arte Ederretan irakasle dabil Bilbon –hark bi iloba eman dizkit– eta Ainara, Bruselan bizi den alaba gazteena dut.